

UDALSAREAREN EMISIO TXIKIKO EREMUETAKO LANTALDEAREN BILERA 2030

Posted on 09/02/2024 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [EGEak](#), [Hirigintza jasangarria eta eko-hiria](#), [Udalsarea 2030](#), [Urbanismo sostenible y eco-ciudad](#), [ZBEs](#)

Joan den asteazkenean, otsailaren 7an, [laugarren bilera egin zuen Udalsarea 2030 Udal Jasangarrien Euskal Sareko Emisio Txikiko Eremuen Lantaldeak](#), Bilboko, Gasteizko, Donostiako, Getxoko eta Irungo udaletako, EUDELeko, [Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko \(FEMP\)](#) eta [Eusko Jaurlaritzako Airearen Kalitatearen](#) Saileko ordezkariekin.

Topaketaren ezaugarri nagusia [Valladolideko Udaleko](#) ordezkariak egindako erakusketa izan zen, ZBEaren ezarpenean izandako esperientzia partekatu baitzuten. Bestalde, ZBE Taldea osatzen duten euskal udalek aukera izan zuten beren ZBE proiektuen garapena zein fasetan dagoen eta beharrezko ordenantzak partekatzeko.



